

Hipopotamoak, zebrak,
gorilak, elefanteak
eta beste animalia askok
lehiaketa oso berezi batean
hartuko dute parte...

Nor izango ote da irabazlea?

ISBN: 979-13-87634-87-6 www.nubeocho.com



9 791387 834876

MUNDUKO PUZKERRIK HANDIENA

Rafael Ordóñez Laure du Fay

nubeocho

MUNDUKO PUZKERRIK HANDIENA

Rafael Ordóñez Laure du Fay







Munduko puzkerrik handiena
Somos8 bilduma

© testuarena: Rafael Ordóñez, 2016
© ilustrazioena: Laure du Faÿ, 2016
© argitalpenarena: NubeOcho, 2017
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2025
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *El pedo más grande del mundo*

Lehen argitalpena: Azaroa, 2025
ISBN: 979-13-87834-87-6
Gordailu Legala: M-22759-2025


Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta argitalpen honen erreprodukzioa.



MUNDUKO PUZKERRIK HANDIENA

Rafael Ordóñez Laure du Faÿ





Elefantea ibaira iritsi zen. Bere hankak
lokatzetan hondoratu ziren, freskura
sentitu zuen eta begiak itxi zituen
plazerez. Gero, tronpa uretan sartu
zuen eta poliki-poliki edan zuen.

“Zeinen goxoa! Hemen ederki egoten
da! Nolako lasaitasuna!”.



Orduan, soinu desatsegin bat entzun zuen. Elefanteak ibaira begiratu zuen eta burbuila bat nola desegiten zen ikusi zuen, puzker bat askatuz.

Hipopotamo erraldoi baten puzker erraldoi bat zen une hartan bertan burua uretatik atera zuena.



Elefanteak hipopotamoa nazkagarria zela
pentsatu zuen, nahiz puzker urpekariak barre
eginarazi zion.

Gainera, baziren minutu batzuk bere tripa-
handian mina sentitzen zuela, eta hipopotamoari
begira-begira, trumoi txiki baten hotsa zirudien
puzker erraldoi bat bota zuen.



Bi animalia potoloak barrez
lehertu ziren, jirafa bat agertu
eta, haiei begiratu gabe, ura
edatera hurbildu zen arte.

Burua jaitsi eta lepoa luzatu
zuenean, ipurdia altxatu
zuen eta, noski, puzker batek
ihes egin zion. Oso potentea
izan ez zen puzker bat, baina
bai zinez luzea.



Une hartan bertan, tximu erdi-ero
bat buruz behera zintzilikatu zen
zuhaitz adar batetik, eta, barre
artean, oihukatu zuen:

—Hau da hau puzker aukera!
Zuek bai haize musikaren maisuak!

Jirafa lotsagorritu egin zen.